


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**MUGIKORTASUNERAKO LAGUNTZEN DEIALDIA,
15-90 EGUNEKO EGONALDIAK EGITEKO ZIENTZIA,
BERRIKUNTZA ETA TEKNOLOGIAREN EUSKAL
SAREKO (ZTBES) ERAGILEEN ZENTROETAN
(2018)**

HITZAURREA

Deialdiaren helburua da laguntzak ematea unibertsitateko ikertzaileei mugikortasunerako, horrela lankidetzaz sustatzeko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko (ZTBES) eragileekin.

Helburu horretarako 50.000€ xedatuko dira Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren aurrekontuaren kargura. Kopuru hau gehitu ahal izango da, unean uneko aurrekontu izatean arabera.

Horrela, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen (IGBB, aurrerantzean) oniritzia izatea eta Gobernu Kontseiluan aurkeztu ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak erabaki du laguntzen deialdia argitaratzea.

1. OINARRIA.- DEIALDIAREN HELBURUA

Deialdiaren xedea da erraztasuna ematea UPV/EHUko ikertzaileei egonaldiak egin ditzaten Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko eragileen zentroetan, horrela unibertsitatearen eta enpresen edo beste eragile batzuen artean ezagutza eta esperientzia trukatzeko eta ikerketaren arloko lankidetzaz bultzatzeko.

2. OINARRIA.- EGONALDIEN EZAUGARRIAK

2.1.- Egondia 15-90 egun bitartekoa izango da, helburu zehatza zehaztuko da erakusteko elkarren intereseko prozedurak aztertu, arazoak ebatzi eta berritzeko beharrezkoa dela unibertsitatearen lankidetzaz.

2.2.- Ikertzaile bakoitzak laguntza honetarako eskari bakarria aurkeztu ahal izango du deialdi hau indarrean dagoen aldian.

3. OINARRIA.- DEIALDI HONETAKO LAGUNTZEN ONURADUN IZATEKO ERAGOZPENAK

Ezin izango dituzte laguntza hauek eskatu egoera hauetako batean dauden pertsonak:

- i. Epai irmoz kondenatuta daudenek diru laguntza edo laguntza publikorik jaso ezin izatera.
- ii. Diru laguntzaren bat itzultzera behartuta egonik, diru guztia itzuli ez dutenek.
- iii. Ebazpen irmo bidez zigortuta egon, lege honen edo beste lege batzuen arabera, diru laguntzak ez jasotzera.

4. OINARRIA.- ESKARI EGILEEN EZAUGARRIAK ETA MUGIKORTASUNAREN HELBURU DEN ZENTROAREN EZAUGARRIAK

Laguntza hau eskatu ahal izango dute 4.1 eta 4.2 ataletan UPV/EHUrekin izan beharreko loturari buruz eta baldintza berezietan buruz zehaztutakoa betetzen duten ikertzaileek.

4.1. UPV/EHUrekin izan beharreko lotura mota:

- a. UPV/EHUrekin lotura iraunkorra daukaten lan kontratadunak edo funtzionarioak, UPV/EHUUn kontratatuta dauden Ramón y Cajal programako langileak, UPV/EHUri atxikita dauden Marie Curie eta Ikerbasque programetako langileak, UPV/EHU-CSIC ikergune mistoei atxikitako doktoreak eta irakasle atxikiak. Guztiak arduraldi osoak.
- b. UPV/EHUUn gutxien dela urtebeteko antzintasuna daukaten langile ez iraunkorrak, UPV/EHUrekiko lotura ezartzen duen kontratua gutxien dela mugikortasuna bukatu arterakoa bada.

Ondorio horretarako, besteak beste, hauek hartuko dira langile ez iraunkortzat:

- i. Prestakuntza bidean dauden ikertzaileak, UPV/EHUko deialdi orokorretakoak izanik praktiketako kontratuaren fasean daudenak.
- ii. UPV/EHUko deialdietako doktorego ondoko ikertzaileak.
- iii. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 21. (doktorego aurreko kontratuak), 22. (doktoreak) eta 23. (itzal handiko ikertzaileak) artikuluetan ezarritako kontratu modalitateen bidez UPV/EHUrekin lotura duten ikertzaileak.

- iv. "Obra/zerbitzu" edo " proiektu jakin baten bidez" kontratatutako ikertzaile doktoreak. Kontratua deialdi lehiakor batean lortutako ikerketa proiektu batek finantzatuta egongo da eta egonaldiak lotura izan beharko du ikerketa proiektuarekin.

4.2. Eskatzaileen baldintza zehatzak:

- a. UPV/EHU n egiten ari den ikerketa proiekturen batean edo ikerketan diharduen ikertaldereen bateko kide izatea, finantzatuta edo finantzatu gabe egonik, ikerketa proiektu hori UPV/EHUren berezko deialdietakoa edo beste hauek egindako deialdietakoa izanda: Eusko Jaurlaritza, I+G+b Plan Nazionala edo Europar Batasuna. Eta UPV/EHU denean proiektuaren finantzazioen onuraduna izanda.
- b. Doktorego aurreko eta doktore ondoko laguntzak ez dira proiektu aktibotzat joko, baldintza hau betetzeari dagokionez. Ramón y Cajal eta Juan de la Cierva programetako diru laguntzak dira salbuespen bakarrak (Inkorporazioaren modalitatea). Horiek berariazko finantzazioa barne hartzen dute proiektu bat garatzeko, kasuan kasuko kontratua finantzatzeaz gainera.
- c. Mugikortasunak udalerriz aldatzea ekarri behar du, eta, beraz, ez da finantziatorik emango baldin eta zentroa eskari egilearen lan lekuaren udalerriri berean badago.
- d. Programa honetako edo antzeko ezaugarriak dituen beste programaren bateko laguntzarik ez izatea.

4.3.- UPV/EHUko ikertzailea hartuko duen erakundearen eta pertsonaren ezaugarriak

- a. Erakunde hartzaile izan ahalko da, hau da mugikortasuneko egonaldian onuradunak proiektua egin ahalko du, ZTBESko edozein agenteren zentrotan, baldin eta laguntza eskuratzeko aurkeztutako proiektuaren eremuan betetzen badu bere jarduna, hartara bermatuta egoteko proiektuaren helburu zientifikoak bete egingo direla eta hobekuntza profesionala ekarriko duela egonaldiak. Besteak beste, honakoak izan daitezke:
 - a. Agente singularrak
 - b. Unibertsitateen ikerketa egiturak
 - c. Oinarritzko ikerketako eta bikaintasunezko zentroak
 - d. Zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren zabalkunderako agenteak
 - e. Osasun arloko ikerketa institutuak
 - f. Osasun arloko I+G erakundeak
 - g. Teknologia gune multifokalizatuak
 - h. Teknologia gune sektorialak
 - i. Ikerkuntza kooperatiborako guneak (IKG)
 - j. I+G enpresa unitateak
 - k. Eskari/eskaintza agente bitartekariak
- b. Erakunde hartzailea ZTBESren erregistroan egon behar da eskaria egiteko unean. <http://www.industria.ejgv.euskadi.eus/registro-rvcti/>
- c. Erakunde hartzaileko arduradunak kasuan kasuko ikerketaren arloan edo berrikuntzaren arloan esperientzia zabala izan behar du.

5. OINARRIA.- LAGUNTZEN ZENBATEKOA ETA IZAERA

5.1.- Laguntzak bi kontzeptu izango ditu:

- a. Otorduetarako gastuak: Baimendutako aldiaren erakunde hartzailean egindako lan egun bakoitzeko (egiaztatu egin behar da), gehienez ere 21 euro emango dira.
- b. Bidaietako gastuak: Gastu hauetarako oinarri hartuko da UPV/EHUko Irakasle eta ikertzaileen arloko errektoreordearen eta gerentearen 2018ko otsailaren 5eko Erabakia, UPV/EHUko zerbitzu ordainei buruzko eta ordezkari gastuei buruzko zehaztapenak ezartzen dituenak.

5.2.- Laguntza hau bateraezinak da helburu bera daukan beste edozein laguntzarekin.

6. OINARRIA.- ESKAERAK AURKEZTEA

6.1. Eskaera ikertzaile nagusiak berak egingo du, atxikita dagoen bere sail/institutuko kontseiluaren onespenerekin.

6.2. Eskariak honakoak izan behar ditu:

- a. Eskaera, inprimaki normalizatua. Inprimakia mugikortasuna hasi baino gutxien dela hilabete lehenago aurkeztu beharko da.
- b. Erakunde hartzaileko arduradunaren onarpen gutuna. Gutunak eskuz egindako jatorrizko sinadura edo baimendutako sinadura digitala izan behar du. Ez da onartuko, ezelan ere, gutun eskaneaturik.
- c. Erakunde hartzaileko ikertzailearen curriculuma. PDF formatuan baino ez da aurkeztuko.
- d. Lizentzia edo Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetzari lizentzia eskatu izanaren frogagiria.
- e. Prestakuntza bidean dagoen ikertzaileak doktorego tesiaren zuzendariaren edo zuzendarien baimena aurkeztu beharko du, eta kontratatutako ikertzaileak, proiektuko ikertzaile nagusiarena.
- f. Ikertzaile eskatzailearen curriculuma.
- g. Eskari egilearen zinpeko aitortpena, adierazita deialdi honetako 3. oinarrian zehaztutako ezein egoeratan ez dagoela.

6.3.- **Eskaerak aurkezteko epea** Deialdia irekita egongo da harik eta egungoa ordeztuko duen hurrengoa argitaratu arte edo kreditua agortu arte, eta horrelakorik gertatuz gero, egoeraren berri emango da jendea jakitun jartzeko.

6.4.- Eskari egileek agiri guztiak bikoiztuta aurkeztu beharko dituzte:

- a. ale bat posta elektronikoz: igz.deialdiak@ehu.eus.
- b. beste ale bat, paperean erregistro bidez, hona zuzenduta:

Ikerketaren arloko Errektoreordetza
Deialdi atala
Errektoregoko eraikina
Leioa

7. OINARRIA.- ESKAERAK EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

Honako hauek dira esleipendunak hautatzeko kontutan hartuko diren alderdiak:

- a. Erakunde hartzaileko ikertzailearen curriculuma (20 puntu)
- b. Eskaera egin duen ikertzailearen curriculuma, kolektibo bakoitzaren kategoria profesionalaren arabera kalkulatu dena (40 puntu).
- c. Egonaldirako proposatu den jardueraren/ikerketaren proiektuaren balorazioa (40 puntu).

Finantzazioa jasotzeari begira, eskaera hautagarria izan dadin, eskaerak 75 puntu lortu behar ditu, gutxienez.

8. OINARRIA.- LAGUNTZAK KUDEATUKO DITUZTEN ORGANOAK

Ikerketaren arloko Errektoreordetzak egingo ditu deialdi honetako laguntzen kudeaketa lanak, Ikerketaren gestioko zuzendaritzaren bidez.

9. OINARRIA.- ESKAERAK BIDERATU ETA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

9.1.- Eskariak edozein unetan aurkeztu ahal izango dira, deialdia indarrean dagoen bitartean.

- a. Eskariak Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak (IGBB) ebaluatuko ditu, eta, beraz, batzordeak bere barne funtzionamenduko araudiari jarraituz bilera egiten duen arte itxaron beharko da.
- b. Laguntzak emateko edo ukatzeko erabakia ebaluazioa egitean hartuko da, hau da, aurreko atalean zehaztutakoaren arabera.

9.2.- Eskariak 7. oinarrian zehaztutakoari jarraituz baloratuko dira.

9.3.- Ebaluazio prozesuan, eskariak aztertzen ari den organoaren ustez egoki bada, eskari egileari eska diezaioke aldaketaren bat egitea eskarian, hartara eskaria deialdiaren helburuetara hobeto egokituta egon dadin.

9.4.- Ikertzaileak UPV/EHUko bi hizkuntza ofizialetako batean aurkez ditzake agiriak.

10. OINARRIA.- EBAZPENAK

10.1.- UPV/EHUko IGBBk, eskariak behin ebaluatuta, Ikerketaren arloko errektoreordetzari igorriko dio laguntzak esleitzeko proposamena.

10.2. Ikerketaren arloko errektoreak erabakia emango du, eskari egile bakoitzarentzako bat (izenduna), eskaria onartua edo ezeztatua izan den jakinarazteko, eta onartua izan bada, hala dagokion kopurua zehaztuta. Hala eskatuz gero, ebaluatze eta hautatzeko irizpide bakoitzean lortutako puntuazioaren berri emango zaie eskatzaileei. Erabakia eskaria ezeztatze bada, arrazoitu egin beharko da zergatik ezeztatu den osotasunean edo zati bat.

10.3. Esleipenaren ebazpenean datu hauek zehaztuko dira emandako laguntza bakoitzerako:

- Ikertzaile nagusiaren izena.
- Zein sailetakoa edo institututakoa den.
- Jardueraren izenburua.

10.4.- Erabakiaren kontra berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da hilabeteko epean, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 123. eta 124. artikuluetan zehaztutakoari jarraituz. Era berean, erabakiaren kontra administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da. Horretarako, bi hilabeteko epea egongo da, erabakia iragarri eta hurrengo egunetik hasita.

11. OINARRIA.- DIRU LAGUNTZA ORDAINTZEKO BALDINTZAK

11.1.- Laguntza jarduera bukatu ondoren ordainduko da, egindako gastuen ordainagiriak behin aurkeztuta eta onartuta.

11.2.- Gastuak egiaztatze, jatorrizko agiriak aurkeztu beharko dira, egonaldia bukatu eta gehienez ere hilabeteko epean. Epe horretan aurkeztu ezean, laguntza galdu ahal izango da.

Horrez gain, ikergune hartzaileak egindako ziurtagiria ere aurkeztu beharko da; bertan zehaztu beharko ditu egonaldiaren datak eta egindako jardueren laburpena.

11.3. Laguntza eskatu dutenek eginiko ordainketen jatorrizko frogagiriak aurkeztu beharko dituzte egindako gastuen justifikazio gisa:

- a. Joan-etorrietarako: Gastu hauek egiaztatze modu bakarra izango da jatorrizko bidaia txartelak edo tiketak aurkeztea, bai eta fakturak eta ordainagiriak ere..

- b. Ez da onartuko ibilgailuak alokatzeko egindako gasturik.
- c. Ibilgailu partikularra erabiliz gero, egiaztagiri gisa gorde beharko dira autopistetako agiriak edo antzekoak, hau da, joan-etorri horiek justifikatzen dituztenak.
- d. Ez da inola ere fotokopiarik onartuko, jatorrizko dokumentuak galdu direlakoan.

12. OINARRIA.- JARRAIPENA

Ikerketaren arloko Errektoreordetzak antolatuko du, Ikerketaren Gestio Zuzendaritzaren bidez, diruz lagundutako eskaeren jarraipena egiteko prozedura.

13. OINARRIA.- EMAITZA ZIENTIFIKOEN BERRI EMATEA ETA EMAITZEN USTIAKETA

13.1.- Ikerketaren ondorioz sortutako emaitza zientifiko guztietan edo emaitzak zabaldu eta ustiatzeko argitalpen eta ekitaldi guztietan (direla ponentziak, hitzaldiak, kongresuak edo parte hartutako bestelako zientzia gertakariak edo patenteak, prototipoak edo erabilera ereduak), UPV/EHUren filiazioa ageri beharko da, bai eta erakundearen ikusizko nortasuna ere, unibertsitateak zehaztutako baldintzetan.

13.2.- Ikerketa jarduerak aurrera eramanez ahala potentzialki patentagarriak edo jabetza intelektuala bestelako elementuen bidezko babesa jaso beharreko emaitzak sumatuko balira, emaitza hauek ikerketako errektoreordetzari jakinaraziko zaizkio, beren erregistroa egin dezan, espezialisten usten hori egitea egoki bada. Erregistroa egin behar izanez gero, UPV/EHU izango da patenteen edo jabetza intelektualeko gainontzeko eskubideen titularra, eta jardueran parte hartu duten ikertzaileei sortzaile direla aitortuko zaie. Erakunde edo eragile sozialekiko lankidetzan burututako proiektuen kasuan, titulartasun partekatua edo kasu bakoitzerako ustiapen eskubide espezifikoa negoziatuko dira, erakunde bakoitzak jarritako baliabide guztien proportzioan.

14. OINARRIA.- DIRU LAGUNTZA EMATEKO BALDINTZEN ALDAKETA

14.1. Ikertzaileei diru laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatzen badira, betiere diru laguntzaren helburua bete dela ulerturik, eta ikertzaileek diru laguntzarik jasotzen badute beste erakunde publiko edo pribaturen batetik, horrek bere garaian diru laguntza emateko onartutako ebazpena aldatuko duen ebazpena ekar dezake.

14.2. Horrelakoetan, administrazio prozedurari emango zaio hasiera (abenduren 17ko 698/1991 Dekretuko 4. artikulua; 1992/02/7ko EHAA), IGBBren proposamenari jarraituz edo batzorde horrek txostena egin ondoren, eta ikertaldeko ikertzaile nagusiari berari egingo zaio jakinarazpena.

14.3. Honako kasu hauetan ulertuko da diru laguntza jasotzeko baldintzak aldatu direla:

- a. Laguntzaren oinarri izandako mugikortasunari uko egitea.
- b. Ekintza berbera egiteko beste iturri batetik heldutako diru laguntza pilatzen denean, edo behar adina justifikatu gabe ekintza beraren aldakiak aurkezten zaizkienean beste erakunde edo zentro publiko nahiz pribatu batzuei diru laguntza jasotzeko, alde aurretik Ikerketaren arloko Errektoreordetzari horren berri eman gabe.
- c. Deialdi honetako oinarriak, guztiak edo batzuk, modu larrian ez betetzea.
- d. Eskaeran datuak ezkutatu, aldatu edo moduren batera edo bestera manipulatzeko.
- e. Gastu bera aurrekontuko atal organiko bati baino gehiagori adjudikatzea.

15. OINARRIA.- LAGUNTZA ESKURATZEN DUTENEN LEGEZKO ERANTZUKIZUNA

Deialdi honetan jasota ez dagoen guztirako, Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoari jarraituko zaio, besteak beste, diru laguntzak itzultzeari buruzko xedapenei eta arau hauste eta zigorreari buruzko arauari.

Aurreko ondorioetarako, ulertuko da Diru Laguntzei buruzko Lege Orokorrean aipatzen diren beste administrazio batzuetako organo zehatzen inguruko aurreikuspenak eskumen baliokideak dituen unibertsitateko organoaz (edo honen ahalik eta antzekoenak dituen organoaz) ari direla.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Deialdi honek administrazio bidea agortzen du eta honen kontra administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan, bi hilabeteko epean deialdia argitaratzen den egunetik kontatzen hasita. Hala izanik ere, aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da erabakia argitaratu eta hilabetearen epean Ikerketaren arloko errektoreordearen aurrean, 39/2015 legearen 123. artikuluaekin bat etorrira.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Honako deialdi hau Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean argitaratzerakoan sartuko da indarrean.

Leioa, 2018ko ekainaren 7an

José Luis Martín González
Ikerketaren arloko errektoreordea
Vicerrector de Investigación